

# Euskalingua 17

## Aurkezpena

Irakurle hori,

*Euskalingua 17*ren edizio elektronikoa aurrekoak halakoa izan arren, CDen argitarapenean aldaketa gauzatu da: disko bakoitzean aldizkariaren zenbaki bi agertuko dira, halan, 16 eta 17 batera d.

*Euskalingua 17*k bost artikulu eskaintzen ditu; Eneko Barrutiak eta Mitxel Kaltzakortak aurreko aleetan argitaratutakoen jarraipenekoak egin ditue; Iñaki Sarriugartek *Eguna* aldizkariaren ibilbidea aurkezten dau; Kepa Perez Urrazak XVII. eta XVIII. mendeetako dokumentuak dakarzkigu, azkenik, Ingeniaritza Goi Eskolako Aholab taldeak bokalen antzemateko sistemaren barri emoten dau.

Eneko Barrutiak *Mundakako arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa (VII)* izeneko artikulua aurkezten dau, itsasertzeko herrietako arrantzaleei egindako grabazioen transkripzioarekin hasitako harilari jarraituz, arrantza langintzako lexiko berezituaren barri zehatza aurkitu daiteke eurotan; hasierako xedea lexikoa izan arren, lexikoaz gan, edukietan be aberastasuna darie grabazio honeei. Oraingoan, *Euskalingua 14*en legez, Dimas Zaldunbideren grabaketen audioaz hornituta dago.

Mitxel Kaltzakortak *Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatzia* (IV) artikulua idatzi dau oraingoan, izenburu bereko I, II eta III artikulua daude idatzita eta aurreko Euskalingua 14, 15 eta 16an irakurgai, gaia osotasunean landu nahi leukeenarentzako. Paragrafo arteko progresinoari erreparatuz landu ditu testuok.

Iñaki Sarriugartek *Euskarazko lehenengo egunkaria: 36ko gerran, Bilbon sorturiko Eguna* egunkariak dihardu, 1937ko urtebarri egunetik urte bereko bagilaren 13ra bitartean, gerra egoeran, 139 zenbaki atara zituen egunkaria, hain zuzen. EAJk Manuel Ziarsolori euskara hutsean egunkaria behar zala eta hori taiutzeko agindua emon, hau A. Zubikarraigaz hartuemonean paratu eta agindua beteten hasi ei ziren, besteak beste, E. Erkiaga, J. M. Arizmendiarieta, A. Mendizabal, A. Aurrekoetxearen kolaborazioagaz. *Eguna* egunkariak gerra giroko gizartearen barri emon

eban euskaraz sortzetik eta frankistek Bilbo hartu aurreko egunetara arte.

Perez Urrazak *Zeberio*ko *Matxurrena baserrian aurkituriko dokumentazio historikoa. Protokolo notarialen metodologiarako ekarpen didaktikoa* izeneko artikulua idatzi dau. XVII. eta XVIII. mendeetako dokumentazio historiko hori hiru ataletan banatu dau, edukiaren arabera. Batetik, protokolo notarialak, XVII. mendeko protokolo multzoa Zeberio eta Olabarrietari dagokio eta XVIII.ekoa Nerbioi ibarrari. Bestetik instantziako auzi judizialak; hauetarik gehienak Ugaoko Alkate-Epailearen aurrekoak, banakaren batzuk Bizkaiko Korregimenduko auzitegikoak, auzi guztietarik bi Valladolideko Erret-Kantzelaritzakoak eta bateren bat Calahorrako Gotzaitegiko auzitegikoa. Azkenik, sei diru-kontu liburu, non jabeak, zordunak, diru-kopuruak eta hainbat zehaztasun ageri dan. Dokumentazio honi danoni darion informazio historiko interesgarria argitaratu dau autoreak *Euskalingua* aldizkariaren bidez, barnean dauan kultura-ondarea irakurlearen aurrean ipiniz.

Aholab ingeniari taldeak *Bokalen antzematea fonemen klusterren bidez* izeneko artikuluan ahotsean bokalak detektatzeko eta segmentatzeko sistema automatikoa aurkeztu dau. Aholabek garatu dauen sistema bokalen alde egonkorak detektatzeko gai da. Sistema hau eta detektatutako segmentuak ahotsean emozioen identifikaziorako parametro prosodikoak kalkulatzeko eta hizlaria egiaztatze sistemetan erabiltzen ari da Aholab lantaldea. Bokale detektatutako hau euskarako datu basean, estilo neutroan probatu dabe eta sistemaren prezisioa mantentzen da beste estilo batzuetan ere. Metodo honen baliagarritasuna beste hizkuntza baten saiatuta be probatu da eta emaitza onargarria lortu da, hizkuntza hori euskararen ondoan bokale sistema nahiko diferentea dauan alemana izanda.

*Euskalingua 17*ko artikuluoak gustuko izango dituzulakoan, agurtzen zaitut.

Aulesti, 2010eko azaroak 17

Maribi Unamuno

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es